

BERRIGARA

10. zenbakia JARDUN Elkartea, Bergara 1995, otsailak 17



Atzeritarren ikuspegia

OPEL ASTRA MERIT BERRIA

GUTXIK EMATEN
GUTE HAINBESTE...
GUTXIREN TRUKE



1.522.000 Ptatik*
hasita daukazu OPEL ASTRA bat
EZ UTZI INORK ERAMATEN!

*Gutxienezko gogoratutako prezioa (Penintsula eta Balearretako). Garraioa, B.E.Z. - a.
*Gutxienezko sarga, entrega-aurreko gastuak eta promozio-zerbitzuak barne.
*Gutxienezko salmentak: Egin kontsulta zure Opel Banatzaile Ofizialean.

OPEL

10^o
URTEURRENA

TALLERES
OLA

Olabarrena Auzoa, z/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 7 46
BERGARA (Gipuzkoa)
OPEL BANATZAILE OFIZIALAK,
ESPERIENTZIAZ ONENAK.

TXURINGO



Jatetxea

OSINTXU ☎ 76 48 63


**ZATOZ GURE BODEGAN
DAUKAGUN SAGARDO ETA
ARDO KUPELAK PROBATZERA.**

**HONEKIN BATERA,
SAGARDOTEGIKO MENUA
DASTATZEKO AUKERA
IZANGO DUZU!!**

SAGARDOTEGI MENUA

- Makailau tortila
- Txuletak, txarrikumea,
arkumea...
- Gazta eta intxaurreak

95erako IKASLEENTZAKO KANPAINA ABANTAILAK BISTAN



EUSKARRIA + KRISTAL GRADUATUA

7.700 pzta.

ZATOZ ETA IKUS

Zatoz orain OPTICOS ASOCIADOSera,
otsailean zehar aparteko eskaintza
egiten dizugu euskarri nahiz kristaletan
eta gainera prezio paregabe



EUSKARRIA + KRISTAL GRADUATUA

7.700 pzta.

ZAINDU BEGIAK, IKUSIKO DUZU ALDEA

Zatoz orain OPTICOS ASOCIADOSera, ikusmenaren
miaketa osoa egingo dizugu. Eta gainera, irabazten
irtengo zara OPTICOS ASOCIADOSekoen
profesionaltasun eta garantiarekin.



GIPUZKOAKO OPTICOS ASOCIADOS

P. Manso
optika

Irizar pasealekua, 2 BERGARA



ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
Tinoa eta Faxa: 76 03 97

Argitaratzailea:

JARDUN Elkarte.
Masterreka, 13 Bergara.
Tinoa eta Faxa: 76 08 19

Zuzendaria:

Gorka Elorza

Erredakzioa:

Eneko Azkarate
Eduardo Mendibil
Mikel Elkorobereizibar

Maketazioa:

Eneko Azkarate
Eduardo Mendibil

Publizitatea:

Alex Azkarate

Harpidetzak:

Gorka Elorza

Testuen zuzenketak:

Estepan Plazaola
Mariipi Laskurain

Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:

Miguel Angel Elkorobereizibar
Estepan Plazaola

Alex Labaien

Iñaki Eraña

Komikiak:

Bittor Rodriguez

Gorka Ortega & Jon Alvarez

Jose Martin Ezenarro

Julian Ezenarro

Alex Ugalde

Unai Azkarate

Portadako argazkia:

Benito Cantero

Banaketa:

Txantxangorri taldea

Tirada:

3.800 ale.

Inprimategia:

Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

SS 50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

BEGOÑA ZUBIZARRETA

Mariaren Lagundia Ikastetxeko zuzendaria

- Dirudienez hainbat kalte izan dira astebukeraren zuen kirol instalazioetan...

- Horrela da bai. Larunbatetan Kirol Eskolarako zabalik izaten ditugu eta aurreko astean larunbat osoan egon zen atea zabalik. Ezezagun batzuk hainbat kalte egiteko aprobe txatu zuten; kristalak apurtu zituzten, buelta eman zioten goi partean dagoen Lourdeseko Amabirjinaren irudi bati... Horrez gain, aldageletan ere hainbat kalte somatu ditugu: tetxoko 8 bat plaka egoera txarrean agertu dira.

- Zein litzateke ekin-tza horiek ebitatzeko modurik egokiena?

- Pena bat da erabileraz ondo matendu daitezken gauzak inolako arrazoirik



gabe apurtzea. Udalarekin hitzarmen bat sinatu berri dugu gure kirol instalazioen erabilera beste jende bati errezteko. Baina batzutan erabilera hori ezin da kontrolatu eta hone-lako gauzak gertatzen dira. Astebukaerako ekintzak errepikatzen badira kirol instalazioak itxi beharrean aurkituko gara guztion kaltetan.

"Kirol instalazioetan kalteak errepikatzen badira itxi egin beharko ditugu"

I T U R R I O N E T I K

Pazkuetan Faemino eta Cansado ekartzea aztertzen ari da Udala

Bergarako Udaleko Jai Batzordea Pazkuetan Faemino eta Cansado umorista bikote ospetsua ekartzeko aukera aztertzen ari da. Jai Batzordea hasi da dagoeneko aurtengo Pentekoste jaietako programa prestatzen eta larunbatean ekitaldi deigarri bat antolatzeke asmoa du. Dirudienez TVE-2 telebista katean izugarritzko arrakasta lortu duten Faemino eta Cansadok *caché* altu samarra daukate, 2 milioi pezeta inguru eskatzen baitituzte emanaldi bategatik. Printzipioz hori da emanaldia antolatzeke oztoporik nagusiena. Beste bat lokalarena litzateke; azkenean Frontoian obrak hasten badira Mariaren Lagundian izan beharko litzateke aktuazioa.

E S A N D U T E

"Ez dut eskuz banakako txapelketa jokatu. Huts egin ezker, ondorioak oso gogorrak izan daitezke"

JOSE MARI ZEZEAGA
Pelotaria
EL DIARIO VASCO

"Euskadik bere nortasun industrialari eutsi behar dio. Hori oinarritzkoa da. Ezin dezakegu pentsatu ere egin, industriaren ordeztu beste era bateko ekimen batzuk bultzatu behar direnik. Industria iharduera nagusia izan behar da"

JUAN MARIA OTAEGI
Euskadiko Kutzako presidentea
DEIA

"Sekula ez naiz izan ikasle ona eta orain, berriz, Goenkale dela eta, egun guztian ditut apunteak alboan"

MIKEL LASKURAIN
Aktorea
DEIA




ENTREVISTA CON EL VAMPIRO

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.

Astelehena: 19.30 (Ikuslearen eguna).



VUELVEN LOS MEJORES

Igandea: 11.30
(Matinala).



JUEGO MORTAL

Osteguna: 20.00.

Zinea

▼▼ *Juego de lágrimas* filmearekin bezala **Neil Jordan** zuzendariak publikoaren arrakasta lortu du berriz ere. Oraingoan momentuko aktore arrakastatsuenetarikoak (emakumeen artean batez ere) aukeratu ditu banpiroen bidez inmortalitatea, heriotza, amodioa edota terrorea landu ahal izateko. **Tom Cruise, Brad Pitt, Stephen Rea, Christian Slater** eta **Antonio Banderas** errepertoan.

▼▼ **Emilio Estevez** aktoreak protagonizatzen du **Walt Disney** ekoiztutako filme hau. *Ducks* hockey taldeko mutilak nahiko kaskar omen dabilta txapelketan baina *Gordon Bombay* (**Estevez**) entrenatzaileari esker gora egingo dute. Hortik aurrera beti amestutako ospea eta dirua eskura izango dituzte...

▼▼ Beldurrezko filme bat zine-klubaren saio berri baterako. **John Flynn**ek zuzenduta, **Edward Furlong** (*Terminator 2*) eta **Frank Langella** aktoreek bidaiari interaktibo bat proposatzen digute... infernura!! Errealitate birtualeko hilketak benetakoak izan daitezke; hori izango da protagonistaren ametsgaiztoa.

Deiak

▼ **Odol ateraldia.** Asteazkenean, hilak 22, arratsaldeko 7etan Seminarioko baxuetan.

▼ **Erakusketa.** Karnabaletako Kartel Lehiaketara aurkeztutako lanak Kultur Etxean. Astelehenetik ostiralera, 6etatik 9etara eta larunbatetan 12etatik ordubietara.

▼ **Erakusketa.** Bergarar presoaren eskulanak Pol-Polen igandera arte.

▼ **Erromeria.** Maixa, Itziar eta Garbiñerekin gaur gaueko 11etan Pol-Polen.

▼ **Omenaldia.** Iñaki Ibabe eta Jose Mari Etxaniz presoeri omenaldia igandean 8etan Plazan. Aurretik manifestazioa egingo da.


Ogia

▼ **Igandea 19:** Mizpildi.

GOARDIAKO

- ▼ **Ostirala 17:** Estella/Español.
- ▼ **Larunbata 18:** Mozos/Corcuera.
- ▼ **Igandea 19:** Mozos/Irizar.
- ▼ **Astelehena 20:** Camacho/Ame..
- ▼ **Asteartea 21:** Puy/Ruiz.
- ▼ **Asteazkena 22:** Guallar/Moral..
- ▼ **Osteguna 23:** Estella/Azkoaga.

Artekale, 27
☎ 76 50 80
(Gaueko 9etatik aurrera)



ATABAKA

Bittoriano Larrañaga

SALEROSKETAK

ANTZINAKO GAUZAK • ALTZARI ZAHARREN KONPONKETA ETA BERRIZKETA

KONDE



Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A

Mendizaleak aurrera...

Pol-Pol Mendizale Taldea gaztetxo, gazte eta nagusientzat mendi irteerak hamabostean behin antolatzen jarraitzen du

Pol-Pol Mendizale Taldeak mendizaleei zuzendutako irteeren programa kaleratu du. Jon Berasategi Pol-Poleko idazkariak esan digunez, "3 kategoria bereizten ditugu: gaztetxoak (14 urtera arte), gazteak (14 urtetik gorakoak) eta heteranoak. Gazte eta heteranoentzat urte osoan zehar antolatzen dira irteerak eta bataz beste hilabetero bat egiten da, guztira 12 bat urtero. Gaztetxoekin, berriz, kurtsoa hasten denetik amaitu bitartean izaten dira, igande goizetan gebienetan. Bazkaltzeko bueltan izaten dira. Bestalde, Aste Santuan eta uda partean bi akanpada izaten dituzte".

la 200 neska-mutiko

Berasategiren ustetan irteera hauek harrera ona izaten dute; "bai, gaztetxoetan adibidez 150-200 neska-mutiko biltzen ditugu astero. Ikastetxe bakoitzean arduradun bat izaten da eta bertan izena emateko aukera izaten dute. Normalean Gipuzkoa barruan izaten dira irteerak. Gaztetan eta nagusietan, berriz, Estatu



Pol-Polek antolatzen dituen irteera gehienak inguruko mendietara izaten dira. Argazkian, Anboto.

osora egiten dira (Pirineotara. Burgosera... etab.) eta lagun gutxiago izaten gara: 25 bat gaztetan eta 50 bat nagusietan. Zein den urteko sasoirik onena mendira joateko? ba uda partea beharbada, udaberrian etortzen da jende gebien".

Hurrengo irteerak honako hauek izango dira: Gaztetxoentzat obserbazio irteera igande honetan (irteera 8.30etan Frontoitik), gazteentzat Olanotik Aratzera (martxoaren 26an)

eta nagusientzat igande honetan Trabakua-Oiz-Bizkaiako Balkoia (irteera 7.30etan Frontoian).

Inurrategi anaiak

Pol-Polek 1.600 bazkide ditu gaur egun eta urteko kuotak honako hauek dira: 400 pezeta gaztetxoentzat, gazteek 800 ordaindu behar dituzte, nagusiek (18 urtetik aurrera) 1.500 pezeta eta jubilatuentzat debalde. Izena eman nahi duenak datu pertsonalak

ematea besterik ez dauka. 18 urtetik beharagoek ez daukate sarrerako 1.000 pezeta ordaindu beharrik.

Bestalde, Pol-Pol Mendizale Taldea hasi da dagoeneko Aste Santua baino lehen ospatuko den Mendi Astea antolatzen; "oraindik ez dugu programazio osoa zebaztu baina diapositiba-emanaldiak, bitzaldiak eta borrelakoak egongo dira. Inurrategi anaiak ere izango dira aurtengo edizioan" aurreratu digu Berasategik.

Deco-Textil

ZANGITU

Etzerako lantzeria
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, etab.

Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69

LONBIDE
OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA

Antzerkiaren inguruan?

Eskutitz honen bidez aurreko astean G. Etxeberriak idatzi zuenari erantzun nahi diot.

Lehenik eta behin esan neri ere asko gustatzen zaidala antzerkia baina, tamalez, ezin daiteke gauza bera esan Bergarako biztanle kopuru gehienari buruz. Zenbat lagun bildu gara azken urteotako antzerki emanaldietan? Gutxi. Ez dakit noren errua den, antolatzaileena edota jendearen interese faltarena. Biena beharbada.

Nik uste dut eskoletan ere ez dela antzerkiaren mundua merezi duen tratamenduaz erakusten. Audibisualetara joaten da eta hor aurki dezakegu guzti honen erruetako bat. Nik gogoan ditut oraindik gure eskola denboran prestatzen genituen antzerki emanaldiak (geuk landutakoak edo autore ospetsuenak). Hori zoritxarrez galtzen doa eta nekez ikusten da gaztetxo jendea antzerki lanak gure herrian izaten direnean. Dena den, eta herrian aktore eta aktorea ospetsuak ditugula kontutan izanda, ez litzateke gaizki egongo emanaldiak sarriago antolatzea. Pixkakana afizioa haundituz joango dela uste dut. Ea horrela izaten den...

A. LARRAÑAGA
NAN: 15.324.892

Ganberroak kanpora!!

Mariaren Lagundiko patioan hainbat txikizio egin dituztela irakurri dugu periodikuan. Astakeria, zorakeria, barrabaskeria eta ez dakigu zenbat keria jarri ditzakegu horrelako ekintza salatzeko. Herrian kirola egiteko toki asko egongo balitz ere...

Mariaren Lagundiak eta Udalak tratua egin dute ikastetxeak, diru kantitate baten truke, bere instalazioak herriarentzat laga ditzan. Horren arabera, eskola orduetatik kanpo edozein herritarrek erabili ditzake kanpoko instalazioak. Jendeak orain arte erabili izan ditu.

Joan zen astebukaeran ganberro batzuk kalteak egin zituzten instalazioetan eta aurrerantzean, orain arte bezala, herritarrek erabili ahal izatea arriskuan jarri dute ekintza horiek.

Mariaren Lagundia ikastetxeak ez dezala hasierako asmoa aldatu eta hemendik aurrera ere instalazioak laga ditzala espero dugu, onartzen dugun arren, iritziz aldatzeko eskubidea duela.

Eta ganberroei esan nahi diegu astebukaeretan nola dibertitu ez badakite joan daitezela euren etxetara eta kalteak egin ditzatela nahi badute euren etxetan, puskatu ditzatela euren disko konpakoak, liburuak edota pos-

terrak baina ez dezatela egin herri guztiaren kalterako izan daitezkeen ekintza basatirik.

M. ARANZABAL ETA LAGUN
KUADRILA BAT

Tiira biraka

JULIAN EZENARRO



TELE BALON



AZKEN BERRIAK: ESKUAK ETA HANKAK LOTUTA ETA LEPOTIK TXINTXILIZ AGERTU DA GIZON BAT... ITXURA GUZTIEN ARABERA, ETA BARNE SAILEAN EGAN DIGUTENEZ, BERE BURUA HIL DU. MOMENTUZ DAKIGUN GUZTIA DA.

Eztabaidak San Juanen egingo den birlandaketaren inguruan

Hainbat taldek zuhaitz autoktonoak landatzea eskatu dute

Mendia Bizirik eta Eguzki talde ekologistak, Herri Batasunak eta EHNE baserritarren sindikatuek beren desadostasuna azaldu dute Hirigintza Batzordeak San Juan auzoko Gaztaña-Zabal eta Lindara mendietan birlandaketa egiteko landutako proiektuarekin. Udalbatzak 2.336.340 pezetako aurrekontua onartu zuen aipatutako inguru horretan (7 hektarea) birlandaketa egiteko. Hasieran bertan pinu insignis eta izei douglasak birlandatzea pentsatu zen baina lehen aipatutako taldeek birlandaketa bertako arbolekin egitea eskatu dute. Mendia Bizirik idatzi bat aurkeztu zuen Udaltxean hasierako proiektua suspenditu eta koniferrak landatu beharrean bertako arbola-motak (pagoak edota haritzak esate baterako) erabiltzeko eskatuaz.

HBk ere beste idatzi bat bidali zuen, proiektuaren akats teknikoak azalduaz eta udal teknikoaren txostena zalantzan jarriz. Beren ustetan proiektua derrigorrez diru eskaera batekin lagunduta joan beharko litzateke, Udalak birlandaketa egiteko dirulaguntzak jasotzeko auke-



Aurreko urteko Zuhaitz Eguneko irudi bat.

ra baitauka. Era berean, honelako aktuzioak berriro errepika ez daitezzen, Udalaren eta honelako gaietan lanean diharduten beste hainbat talderen artean harreman gehiago izatea eskatu du.

EHNEk ere bertako landaretza erabiltzea eskatu zuen, "Administrazioa bera izan behar litzateke elako lebena adibidea ematen, bertako landaretza erabiliz bain zuzen ere". Era berean Baso Politikarako Laguntza Plana aurkeztu du, baserriar eta lur jabeek dirulaguntzak jaso ahal izan ditzaten.

Eguzkik hasierako proiektua alde batera uzteko

eskakizuna egin du, arau subsidiarioen inguruan landutako "Baso Politika Zuzenen alde" izenburuko alegazioa gogoratu.

Xabier Gallastegi Hirigintza Batzorde buruaren hitzetan, "Plenoan inguru bori birlandatzeko partida onartu zen, besterik ez. Ondoren, Mendia Bizirik idatzi bat aurkeztu zuen eta gaia birplanteatzen ari gara. Gero atzean beste taldeak etorri dira... Baina gauza bat da Hirigintza Batzordeak duen proposamen bat eta beste bat Gobernu Batzordeak bori onartzea. Ez da Gobernu Batzordetik oraindik pasa".

◆ HBren deia

Herri Batasunak dei egiten die bere alderdikideei bihar larunbatean arratsaldeko 3^{er} dietan Arrano Zaharrean egingo den bileran parte hartzeko. Oldartzen eta Iratzar proposamenak aztertu eta bietako bat aukeratu beharko da. Aurreko bileran 40 bat lagun izan ziren, partehartze zabal izan zelarik.

◆ Jubilatuen oharra

Jubilatueta bazkaria egingo da otsailaren 28an, Karnabal martitzenean. Prezioa 1.850 pezetakoa da eta izena emateko epea ostegunean, otsailak 23an, amaituko da (palaza mugatuak). Bazkalostean dantzaldia izango da eta mozorrotutako guztiei txanpan botila bana emango zaie.

JAIOTAKOAK

Mikel Mengual Reyes
Otsailak 9

HILDAKOAK

Markos Urriategi Maiztegi
Otsailak 9

José Benítez Izquierdo
Otsailak 9, 65 urte

Eugenia Aranzabal
Otsailak 11, 82 urte

Filomena Alcalá González
Otsailak 12, 81 urte

Juana Jauregi Velar
Otsailak 13, 91 urte

Zure
konfidantzako
denda



Tfnoak: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

◆ **Landaketak ibai-ertzean larunbatean**

Mendia Bizirik talde ekolojistak dei egiten du bihar larunbata, otsailak 18, Deba ibai-ertzean egingo den landaketan parte hartzeko. "Ibaiak eta gu" ibai-ertzekiko sentsibilizazio kanpainarekin jarraituz, biharko ekitaldian interesatutako guztiek parte hartu ahal izango dute eta haltza eta sahasa landatzeko asmoa dago. Irteera goizeko 9 t'erdietan egingo da Pol-Pol elkartetik. Kanpainari amaiera emateko ibai-ertzeko hainbat toki aproposetan basahate bikoteak askatuko dira.

◆ **Moto konzentrazioa Elgetan**

Arrate Motor Taldeak, Elgetako Udalaren laguntzaz, moto konzentrazio bat iragarri du Elgetan otsailaren 25 eta 26rako. Larunbatean programa honako hau izango da: 16etan izen-ematea eta karajilloa, suaren piztuera 9etan, 21etan parrillada banatuko da eta 23.30etan kontzertua Frontoian. Igandean, berriz, gosaria izango da 9etan eta jarraian ibilbide turistikoa egingo da.

◆ **Argazki lehiaketa emakumearen inguruan**

Gizarte Ongizaterako Udal Batzordeak, Pol-Pol Argazki Taldeak eta Emakumearen arloko ekintzetarako taldeak antolatutako "Emakumeei buruzko Argazkien II. Lehiaketa"ra lanak aurkezteko epea martxoaren 1ean amaituko da. Lanak Udaleko Gizarte Zerbitzuan jasotzen dira. Argibide gehiago, bertan.



Abiadura Haundiko Trena Epele-erreka bailaratik pasatzea eskatzen dute angiozartarrek.

Angiozartarren proposamenak AHTren proiektuari

Idatzi bat aurkeztu dute Udalean aldaketak proposatuz

Bergarako alkateari bidalitako idatzi batean, Angiozar Bailarako Batzarrak desegokitzat jotzen du Abiadura Haundiko Trenak (AHT) bailara horretan jarraituko lukeen trazatua. Idatzi horretan jasotzen denez, "planoen arabera, trenbidea hiru etxeren ondotik (Eduegi, Loidi-Etxebarri eta Errotiaga) berrogei metro baino gutxiagora pasatzen da. Era berean interkomunikadorea egingo litzatekeen lekutik Azkuneta 100 m.ra geratzen da eta Angiozarko kalea 400 metroren barruan".

Angiozarko Bailarako Batzarrak planoetan zenbait akats somatu ditu, Errotiaga eta Frantziña-Berri etxea ez baitira adierazten. Horrez gain, trenbide-gurutze hau Iruauzo errota eta honen bi presen gainean eraikiko litzateke eta eraikuntza hauek ez dira

ez planoetan ez eta dokumentazioetan agertzen.

Bestalde, inguruko ezaugarri akustikoak kontutan izanik, trena ipintzeak sortuko lukeen zarata nabarmena eta paisaiari berari egiten zaion eraso gogoratzen ditu Angiozar Bailarako Batzarrak. Guzti hori kontutan izanik, AHTrentzat trazatu berri bat estudiatzea proposatzen dute, Epele-erreka bailaratik pasaraziz eta interkomunikadorea bertan kokatuz. Bailara horretatik Beasain-Durango korredoreko Arrasateko bariantea pasatzen da eta etxebizitzek kalte txikia jasoko lukete, baserrietxeak malda erditik gorantza baitaude. Bergarako Udalak dagokion organismoari beraien proposamena luzatu diezaiola espero du Angiozarko Bailarako Batzarrak.



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

YAZKI

UME GAZTE

Neska eta mutil

Irizar, 3
☎ 76 16 14

Ibargarai, 8
☎ 76 54 73

Aurpegi berri batzuk alderdien alkategaien artean


EA, IU eta PPk ez dituzte oraindik zerrendaburuak aukeratu

Pixkanaka-pixkanaka zehazten doaz alderdien Udal Hauteskundeetarako zerrendak.

Aurreko hauteskundeetan bezala Victoriano Gallastegi izango da EAJ-ko zerrendaburua. HBk, berriz, Maite Aristegi aurkeztuko du alkatezarako; PSE-EEko kandidatoa Alvaro Esparza izango da eta EAK oraindik ez du erabaki bere hautagaia. Hainbat mediotan Kontxi Irizar izango dela esan bada ere, asteazkenean EAtik adierazi zigutenez, "zurrumurru bat besterik ez da. Oraindik zerrenda osatzeko prozesuan ari gara eta hemendik as-

tebetera emango dugu gure zerrendaburuaren izena". Kontxi bera edo besteren baten artean egingo da seguruenik aukeraketa.


PPk, era berean, zera eman digu jakitera; "oraindik ez ditugu zerrendak osatu, ezin dizuegu aurreratu nor izango den kandidatoa. Momentu honetan izenak biltzen ari gara bakarrik". IU ere prozesu horretan murgilduta dago eta ez du beraien kandidatoaren izena aurreratzetik izan. Azken bi alderdi hauek lehen aldiz aurkeztuko dira Bergarako Udal Hauteskundeetara.



Victoriano Gallastegi EAJko zerrendaburua.



Maite Aristegi, HBren alkategai berria.



Alvaro Esparza, PSE-EE.



Kontxi Irizar seguruen EAko alkategaia.

◆ Miguel Altuna

Institutuaren urteurrena

Miguel Altuna Institutuaren 50. urteurrena antolatutako ekitaldien barne, datorren ostegunean, hilak 23, Eugenio Ibarzabal kazetariaren

"Kalitatea irakaskuntzan"

izenburuko hitzaldia izango da arratsaldeko 7 t'erdietan bertako Areto Nagusian.

Bestalde, 50 urteurren hori ospatzeko argazki erakusketa bat antolatzeko asmoa dago. Hortarako jendeak dituen taldeen argazkiak eta irteera, ikasketabidaia edo San Juan Boscoko argazkiak ikastetxera edota Gisasola burdinakidendara ekartzeko eskatzen zaie interesatuei. Komenigarria izango litzateke argazkien atzekaldean emailearen izena eta telefonoa jartzea behin erakusketa amaituz gero itzuli ahal izateko.

◆ Eskulan ikastaroa

JARDUN Elkarteak martxotik maiatzera emango den eskulanm ikastaroa iragarri du. Klaseak astearte eta ostegunetan izango dira, 3retatik 4 t'erdietara.

JARDUNeko bazkideek 2.000 pezetakoa eta gainontzekoentzat 2.500 ordaindu beharko dituzte.

Argibide gehiago JARDUN Elkartearen (Masterreka 13) edota 76 08 19 telefono zenbakian.

◆ Arrantza lizentziak

Oilagorra Ehiza eta Arrantza Elkarteak jakin arazi duenez, aurtengo arrantza lizentziak Bazar Corpa dendan jaso ahal izango dira. Bestalde, Manuel Tejadak irabazi zuen San Martzialen jokatu zuen kirol tiraketa proba, Jose Felix De Benito eta Raul Dacostaren aurretik.

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA

☎ 79 91 82 ARRASATE



zumelaga

JATETXEA

IGANDETAN ZABALIK!!

San Antonio, 5
BERGARA
☎ 76 20 21

Maidier Osa 17 urteko arrasatearra amodiozko gutunen irabazlea

Izaskun Arziniega eta Julen Agirrebeña bergararrek 2. saria eta irakurlearen saria jaso dute. 200 lan inguru aurkeztu dira.

Martitzenean, San Balentin egunean, banatu ziren Amodiozko Gutunen III. Berrigara lehiaketako sariak.

JARDUN elkarteak aurren hirugarren aldiz antolatu duen amodiozko karten lehiaketan Hego Euskal Herri osotik bidalitako 198 gutun jaso dira (125 emakumezkoenak eta 73 gizonzkoenak) eta Maidier Osa 17 urteko arrasatearrak eskuratu du lehen saria (75.000 pzta.), "Lekaime batek apaiz bati" gutunarengatik. Bigarrena (40.000 pzta.) eta bergarar onenaren saria (25.000 pzta.) Izaskun Arziniega 17 urteko bergararrak eskuratu du eta irakurlearen saria (Xabier Diaz de Zeriok egindako eskultura), ostera, Julen Agirrebeña (26 urte) bergararrak. Epaimahaiak, 10.000 pzta.ko akzesita eman dio Kemen Uranga 25 urteko ondarrutarrari eta aipamen berezi bat egin nahi izan dio Imanol Sorondo 25 urteko hernaniarraren gutunari.

Iaz baino gutun gehiago

Aurtengo edizioan iaz baino askoz ere karta gehiago jaso dira. Joan zen urtean 69 eskutitz jaso baziren ere, aurren 198 izan dira.

Kartetan erabili diren gaiak era askotakoak izan dira, baina kartzelatik idatzitako sexu bereko bikote-



Amodiozko Gutunen III. Berrigara Lehiaketako irabazleak San Balentin egunean egin zen ekitaldian.

en arteko edota bikoteen ahusdurak adierazten zuten karta ugari izan dira.

Eskutitz gehienak gazteek idatzitakoak izan badira ere, 33, 38 edota 73 urtekoak ere animatu dira. Hala ere, Joxean Sagastizabal eta Pako Aristi idazleek, Amaia Zubiria kantariak eta Miguel Angel Elkoroberezibar irakasleak osatutako epaimahaiak adierazi duen moduan, "belduen parte bartztea faltan bota dugu, nagusien perspektiba ikusteko aukera haundirik ez baitugu izan, nahiz eta gazte batzuk, Maidier Osa irabazleak esate baterako, beldutasun haundia erakutsi idazterakoan, gaiaren zein formaren aldetik".

Originaltasuna, ironia, malizia...

Jaso diren karta piloak azpimarratu du epaimahaiak: "partehartze haundia izan da eta idazleek ausardia haundia erakutsi dute. 20 bat gutun oso kalitate onekoak ziren, nahiz eta orokorrean, erdi-mailakoak izan gehienak".

Lehen saria irabazi duen kartari dagokionean, monja batek Urkiolako apaiz bati idatzitakoa, "euskara aldetik oso jantzia izatea, gai aldetik oso orijinala eta erabiltzen duen ironia, malizia eta poesia" azpimarratu du epaimahaiak. Sorpresa hartu dute epai-mahaiki-

deek egilearen adina ezagutu dutenean, "persona heldu batek idatzia zela uste baikenuen".

Irakurlearen saria

"Irakurlearen saria" aurtengo edizioako nobedadea izan da. Aranzadi ikasitako Edurne Zabala, Mariaren Lagundiko Blanca Cebrián eta Miguel Altuna institutuko Aintzane Zuriak osatu dute epaimahaiak eta euren esanetan "oso esperientzia polita izan da, baina astun samarra". Irakurlearen gutunean, orijinaltasuna eta Bergarako euskaran idatzitako egotea baloratu du epaimahaiak.

1. saria: Maider Osa

Lekaiame batek
apaiz bati

**17 urteko arrasatearrak
ustekabea hartu zuen
amodiozko gutunen
lehiaketara
aurkeztutako kartarik
onena berea zela esan
ziotenean. Moja batek
Urkiolako apaiz bati, On
Balerianori, idatzitako
karta da. Epaimahaiak
hizkuntzaren
zuentasuna,
orijinaltasuna eta ironia
baloratu ditu.**

Urkiolako Santutegian
1991ko uztailak 13an;
San Antonio egunez

Ene On Baleriano Kuttuna

Goizean pulpitutik esandako berorren hitz zolien leuntasunak baino ez dezake bare ene bihotz suminduaren ezinegona. Zazpigarren marabila dirudi, zeru goietako Jaungoiko gure lagunaren mezulari den aingerua, edo ta beharbada Jaungoikoa berbera, hezur eta haragi, bigarrenez berpiztua bailitzan...

Izan ere, berorren presentzia soilak, berorren hitzen xarmangarritasunak, berorren begien dizdirak sermoian jalgitako egia gordinen konpas pausakorrean... ene izpiritua goraltzen eta xamurkiro goxatzen dute... "hemen, San Antonio egunez eleibarruti honetan bildutako kristau orori, zera diotsuet: Maita itzazuela etsaiak eta egin on gorrotoa dizueteinei; zeruetan dagoen zuen Aitaren seme izan zaitezten, egin ototz erasotzen zaituztenen alde, Hark zintzoetzat eta gaiztoen-

tzat ateratzen baitu eguzkia..." neronen oroimean ongi pausatua dut berorren hitz gogoangarrien hatsa. Baina, umiltasun osoz eta lekaiame naizen legez, zera eskatzen diot: Aditu beza ene bihotz erituaren erregu sakratua, nik berorren esanei adeitasuna diedan lez, berori baita ene eguzki bakarra, ez besterik... eta berorren errainu edo printzen zirrarak ene bihotzaren iluntasunari argi egin diezaion, arras atseginez fereka nizan.

Barka bekita nere ausardia eskutitz hau besterik ezean aitortokian uzteagatik eta orohar lekaiame gisa ene prestutasuna, izaeraren otzana eta dohaia lohitu badut. Baina, ba al da

ederragorik benetako maitasun aitormen bat baino?

Gure artean gertatzen dena ez zaio arrotz Jaungoikoaren asmoari; Berak esana baita onginahizko sentimendu hau ez dela bekatu, benetako eta gardena izanez gero. Aitzitik, Bere pentsamentuetan erratuko balitz eta maitasuna lizunkeria hutsa bada, profeta guztiek aitortuz dezatela Bere izenean gure bekatuaren barkamena.

Ai, On Baleriano, Balerianotxo kuttuna... Ezagutu beza ene amodioaren erreinuaren misterioa, orain arte hila zena, ezerezaren ezereza, hutsaren hutsa... eta errauts horien gabeziagatik berorrek piztua, miraria bailitzan.

Beraz, zeru goietako

Jaun guztiz ahaltsuaren begiramen, eskuzabaltasun eta onespenez, maite dezagun elkar, bion fede eta graziak bat eginik, bidera bedi gure barneko guraria mugarik gabeko paradisu plazent batetarantz.

Hainbat aldiz izana naiz Lourdesen bertako mireriengan sinesgarritasun haundiena jarriaz. Horren ondorioa izango da berorri gutun hau idaztera bultzatu nauen barneko indar eraginkorra. Bertan eginiko hitzarmenak dira gauean bederatzi ordu lo egin beharrean, hiru gu bion alde errezuan ematea. Lourdeskoa gutxi balitz eta berorri neure eskuez ferekatzeko desioari ezin eutsiz, Urkiolako San Antoniori emandako agindua da gauero kandela bat piztuko dudala noizbait, berandu baino lehen, nere ametsen xamurtasuna egia borobil bihur dadin.

Oh, On Baleriano bihotzekoa, Jaungoiko guztiz ahaltsuaren errukiagatik eskatuko diot, emaidala preso dagoen nere bihotza xamurkiro hegan jarriko den esperantza, berori baita hura libera lezakeen zerrailaren giltza duen bakarra. Eta apalki erregutzen diot, ez dadila zorigaiztoko mundu honen antzeko egin; antzberritu eta gogoberritu dadila berorren nahietan, baldin eta Jaungoikoak agintzen badio.

"Amodio arrotz eta ilun honen argizat daukat, lurrraren bazterreraino, Jaunaren gogo horrela bada, berorri ene salbamen izan dadin"

Jaungoikoari aintza gizaldi eta gizaldi guztietan. Amen.

Sor Matilde



"Ai, On Baleriano, Balerianotxo kuttuna... Ezagutu beza ene amodioaren erreinuaren misterioa, orain arte hila zena, ezerezaren ezereza, hutsaren hutsa... eta errauts horien gabeziagatik berorrek piztua, miraria bailitzan". MAIDER OSA.



"Badakit baita ere gure urteetako adiskidetasuna bertan behera gera daitekeela. Hala ere arriskatu beharrean nago, ezin bait dut gehiago". IZASKUN ARZINIEGA.

2. saria eta bergarar onenarena: Izaskun Arziniega

Maitasunak ez du inongo mugarik!!

17 urteko bergararra Ipintza Institutuan UBI ikasten ari da. Euskarazko klasean irakasleak amodiozko gutunak idazteko lana eman zien eta berea aukeratu zuten lehiaketara aurkezteko. Homosexualitatea era sinesgarri eta natural batean tratatu du.

Kaixo Kepa

Nire gutuna jasotzeak erabat harrituko zaituolakoan nago. Ez harritu, laster jakingo duzu guzti honen zergatia.

Aspaldidanik ezagutzen gara eta badakizu nolakoa naizen, nere barneko sendimenduak azaltzea oso zaila egiten zait. Gure artean beti egon da konfiantza ososa, sekula ez

dugu gure artean sekreturik izan. Hala ere badago gauzatxo bat nire barnean, oso barnean, erretzen nauena. Sarritan saiatu naiz nere barneko sentimendu ezkutuen zuri azaltzen baina ez dut behar adina adorerik izan aurpegira esateko, badakizu! aurrez-aurre zailagoa egiten da.

Gizarteak eta kultura hipokrita honek are gehiago oztapatzen nau guztia azaltzeko orduan. Jakin badakit askorentzat gusto txarrekoa izango litzatekeela gaur egitera nihoan aitortza. Badakit baita ere gure urteetako adiskidetasuna bertan behera gera daitekeela. Hala ere, arriskatu beharrean nago, ezin bait dut gehiago.

Dena azaldu beharra daukat bestela "lehertu" edo txoratu egingo naiz.

Orain dela urte batzuk, "insti"an hasi ginenean zerbaitez ohartu nintzen. Hasiera batean urduritu nintzen; gauza txarra, pekatua... etortzen zitzaidan burura. Ordura arte eraku-

tsi zizkidaten maitasun-arau guztiak balantzan jarri ziren nire barnean. Inork ez zidan gizonezko bat maitatu nezakeenik erakutsi; ez ikastolan, ezta etxean ere. Non zegoen bada akatsa? Agian neu ote nintzen? Denboraldi batez oso gaizki pasa nuen; ezberdina sentitzen nintzen, bakarrik. Inork ezin zuen nere arazoa konpondu; ez nuen nik bezala sentitzen zuen inor ezagutzen. Nere buruaz beste egitea ere pentsatu nuen, bai, hori izan zitekeen biderik errezena eta azkarrena.

Asko ausnartu ondoren, argi bat topatu nuen nere

mundu ilunean. Argi garbi eta indartsu hura nere bihotzean aurkitu nuen.


Asko borrokatu behar izan nuen zulo ilun hartatik irtetzeko eta lortu nuen konturatu nintzen egin behar nuen bidea ez zela arina izango.

Orain berriro zulo ilun batean aurkitzen naiz, maiteminduta nago, oso maiteminduta. Bai, egia da Kepa, maite zaitut. Zure ondoan nagoenean munduko mutilik zorionsuena naiz. Gustokoak ditut zure begi ilun horiek, zure irrifar alaiak nere bihotza dantzan jartzen du. Nere egunik zorionsuenak zure ondoan pasa ditut eta aurrerantzean berdin jarraitzea nahiko nuke. Zer diozu?

Ikusten duzunez jator jokatu dut zurekin. Mesez eskatuko nizuke zure jokaera berdina izan dadila. Zure erantzuna ezezkoa bada, zure iritzia ezberdina badira ere, nere sentimenduak errespetatuko dituzulakoan nago. Maitasunak ez baitu inongo mugarik!! Muxu haundi bat. Karpe Diem.

P.D.: Inork agintzen ez didalako naite bau maite nauenak. Inork agintzen ez didalako maite dut maite dudana.

(Exkixu)



**Irakurlearen saria:
Julen Agirrebeña**

Kepa

**26 urteko bergararrak
aurten lehen aldiz
antolatu den
irakurlearen saria
irabazi du Amodiozko
Gutunen Berrigara
Lehiaketan. Bergarako
euskaraz idatzita dago.
Mutil batek bere
maitalea izan den eta
HIESak jota hil den
lagunari idazten dio
maitasun gutuna.
Julen Agirrebeña
aurten lehen aldiz
gutunen lehiaketara
presentatu da eta
sekulako sorpresa
hartu du
sari bat jaso duela esan
diotenean.**

Bergara 1995-01-02

Kaixo Xabi!

Zer moduz zare? Ni betiko bezela, badakizu hemen Bergaran gauza gutxi dago eitzeko baiña konpontzen naiz. Ahaztu bañon lehenau, lagunak gorantziak emon dozte zuretzako, asko gogoratzen die zurekin. Heraiñegun kriston juergia bota giñuan, badakizu Gabon Zaharretako betiko juerga. Goizeko hamarretan bukatu giñuan Antxonin gosaltzen, baña ez zan dana urtero bezela izan, zerbait falta zan. Zu falta ziñan. Zer moduz Gabon Zaharrak hor? Jende pilo bat juntatu hor? Jende pilo bat juntatu hor? Jende pilo bat juntatu hor? Badakit esan zoztazula zurekin lehen bait lehen ahaztutze, baña oso nekeza da. Lehenengo Gabon Zaharrak izan die zure musu eta laztan barik eta mordo bat bota dotzut faltan.

Beti gogoratzen naiz elkar ezagutu giñan Bergarako jai harekin. Poteoan elkar begiratzen giñan baña ez zu eta ni gutxiau ez giñan atrebitzen ezer esaten. Gogoratzen? Klaro, nik zu bañon bost urte gutxiau neuzkan, eta zeiniek pentsau zeikien orduan elkarrik bukatuko giñuala. Egixa esanda nere bihotzak zurekin egoteko eskatzen zoztan baña nere buruak ea zoratuta neuan esaten zoztan. Oindio gogoratzen naiz junixoko zapatu haretan Txibistotik irteaduan zure Renault 5-ian maitasuna lehenengo aldiz egin giñuan momentuakin. Haura bai poza eta gozadia. Eta Bilbora, zure anaiaren ikasle pisura, joan giñan astebukera haura? Pisan iñobe ez zeuala arobetxau giñuan eta aste bukaera gutzia egon giñan jo ta zu gure gorputzak izara artian

igurtzen. Oin berriz gorputzakain ain urrin bagare nere pentsamentu ta bihotza zurian oso gertu sentitzen ditxut. Asko botatzen dot faltan zure pertsonalitate alaia baña ordu berdiñan serioa, zure berba eitzeko modu zakarra baña argia. Zuk esan zoztazun bezela ahalegindu naiz beste pertsona bat topatzen, baña zuk zeuzkazun kualitateak ez dauzka iñork.

Zure argazkin bat ikusten doten bakoitzian zure gorputz atletikoakin akordaten naiz, zure ile beltz, begi berde, abdominal markatuak, ilez betetako hankak eta zure ipurdia. Oindio zure ipurdi zoragariakin gogoratzen naizenian ileak punta puntan jartzen jat. Bergarako neska danak kriston enbidixia zozten zure ipurdi xarmant onduan ikusten zoztenian, eskutik Espolo-

ian pasiatzen edo Bideberrin jarrita.

Klaro, holako ipurdi eta pertsonalitatea eukitxa ez nitzan harritsu neska aura zurekin maitemindu eta zaren tokira betirako eruan zoztunian. Gabon aurretik ni be berakin topau nitzan, nola da bere izena,... a bai! IHESA, eta esan zoztan denbora gutxi gelditzen jatela zurekin elkaritzeko. Zelako ondo, eh Xabi? Azkenian berriz elkarrik egongo ga. Hasi zaitez pisu bat topatzen hor goixan ailegatzen naizenerako. Badakizu ohe haundiak gustatzen jatela sedazko izarekin.

Bueno maite, zurekin berriz egoteko desiatzen nago. Bixkor arte.

Musu haundi bat.

Zure bihotzeko laztana.

Kepa.



"Begarako neska danak kriston enbidixia zozten zure ipurdi xarmant onduan ikusten zoztenian, eskutik Espoloian pasiatzen edo Bideberrin jarrita". JULEN AGIRREBEÑA.

Telebistako aurpegi ezaguna

Mikel Laskurain

Gu Aranzadi ikastolako 7. mailako ikasle batzuk gara eta joan den igandean Mikel Laskurainekin izandako elkarrizketa aurkeztu nahi dizuegu. Dakizuenez, Goenkalen kontrabandista izandakoa da eta orain enamoratuta dago.

- Kaixo, Mikel!

- Kaixo!!!

- Zenbat urterekin hasi zinen telebista munduan?

- Telebistan..., agian hogeit urterekin edo lehen aldiz.

- Eta nola ba?

- Antzerki eskolan bukatu nuen, "Bi eta bat"en edo kapitulu baterako lana eskaini zidaten eta hori egin nuen: egun bateko lana.

- Zenbat ordu sartzen duzu kapitulu bakoitza grabatzen?

- 5-6 ordu edo pasatzen dugu.

- Zein pertsonaia gustatuko litzaizuke izatea Goenkalen?

- Bueno, ba, naizena esan beharko dut, ez dakit. Bestela? Ba, ez dakit, ez dut pentsatu.

- Gustora zaude zure pertsonaiarekin?

- Bai, uste dut baietz, gero eta gustorago, ikasi az.

- Txikitan amesten al zenuen kamaren aurrean izaterik?

- Nik amets, amets as-

ko eginen dut, lo asko egitekoa izan naiz eta (barre). Ez, nik horrelako esperientziarik ez nuen, ni umilagoa izan naiz beti.

- Goenkaleko Felixek eta Mikel Lasku-

rainek antzin al dute?


- Bai..., ile gutxi eta hori biek dute, baina bes-telako antza... Ba, kasualitatea izan da Amaia egiten duenarena, Miren benetako nobia izatearena.

- Bizitzeko Hernani ala Bergara?

- Bergara.

- Zergatik?

- Ba, Bergarako nai-zelako eta hango euskara ezberdina da; orduan beti zaude inkomodo, hango-ek uler zaitzaten halako euskara erdi batua, erdi ez dakizuna zer den ere egin behar duzu. Ez dakizu? emigranteen moduan, hangoa ikasi behar duzu...



Ekainera arte Goenkalen ikusteko aukera izango dugu Mikel.

"Goenkalen testoa ikastea da dena eta Barrez lehertun berriz, dena da inprobisazioa"

- Eta zer egiten duzu zure denbora librean?

- Ez daukat denbora libre asko. Lan asko egiten dut! Baina..., zurito batzuk hartu, mendian ibili, eskiatu, perretxikotara joan, lo (barre), telebista ikusi...

- Aktorea bat?

- Goenkalen Amaiarena egiten duena.

- Erraza al da aktore izatea?

- Pizf! Edozein ofizio moduan. Eginaz, ikasten zoaz. Zenbat eta esperientzia haundiagoa, orduan eta hobeto.

- Zergatik hilarazi zuten Martin?

- Kontratazio arazoengatik hilarazi behar izan zuten.

- Zenbat telesail egin duzu?

- Bueno, egin baino parte hartu. "Bi eta bat", "Beni eta Marini"... Tarte-ka ia denetan baina beti egun bat, bi egun... Pertsonaia txikiak: behin irten eta gero desagertzen direnak.

- Zenbat kapitulu dituzte Goenkalek?

- Ba, hasi ginenetik ekainera arte, 200 egingo ditugu.

- Eta pelikulan musuka iharduteak atzerakada ematen al dituzte?

- Ez da oso naturala, ze zu musuka zauden bitartean beste 10 pertsona begira dituzu eta zain, gainera.

- "Baietz barrez lehertu" ala "Goenkale"?

- Bi gauza desberdin dira: Goenkalen testoa ikastea da dena eta bestean, berriz, dena da inprobisazioa.

- Bale, eskerrik asko eta hurrengora arte.

- Eskerrik asko zuei. Ez dakit jakingo duzuen baina ni ere zuek ari zareten ikastola horretan ikasitakoa naiz.

Hau da ikastolara joan beharra!!

Naiara Uribeslago, 7.A

Triin-triin!! Triin-triin!!! Ze ordu da? Zortziak dira. Eskolara joan behar. Hau da logura. Hiru hilabeteak medikuak indizino bat jarri baino azkarrago pasatu dira. Kaixo! ni Linda naiz eta zazpigarren mailara joan behar dut. Oporretan Hawai-ira joan naiz nire gurasoeekin.

Eskuak dardarka ditut zazpigarren mailarekin akordatzen naizen bakoitzean, aiiiiii! Zer egingo nuke nik oporrak orain-txe izango banitu...

Ia gauza guztiak hartu ditudan, bada-epzpada berriro begiratuko dut. Boligrafoa, arkatza, borraratekoa, kuaderno txikia eta Amabirjinaren irudia. Dena prest daukat,

baina, baina, nola joan behar naiz biluzik eskolara? Burua beste planeta batetan daukat eguzkiari birak emanaz.

Jantzi naiz, gosaldut, liburuak hartu ditut... Gauza bat ahaztu dut, "Aita gurea" errezatzea, ia, bat, bi, hiru: Gure aita zeruetan zerana... Ikastolako ate aurrean nago, nire lagunak hemen daude eta ate zabaldu dute; gorantz joan naiz, eta hasten da andereñoa: Pepito Gonzalez, Faustino Lutxi, Linda Iruretagoiena... Ai ama!!!, nire izena esan dute, 7. A tokatu zait. Oso ona da. Andereño Misifu tokatu zait niri. Gaur hitzegin dugu eta gero margotu. luuuuuuuuu!!! Hasi da kurtsoa!!!!

Non ote da aurten gure jostailu polita

Olaia Alberdi eta Junkal Arruti, 7.E

Ez dakit noiz helduko den elurra, eguzki eta egun onarekin, baina oraindik goiz da elurra gure mendietara heltzeko. Etorrera gaur edo bihar bada, oso ondo, baina negu honetan elurrik ez badugu... triste pasatuko dut, negua beti izango da ongi etorria, ordea.

Elur zuri eta hotza, lagunekin elkar jolasteko. Eskularru, txano eta bufanda berriak estreinatzeko eguna. Batzuk, eskularruak bakarrik, beste batzuk, ordea, eskularrua eta txanoa bakarrik. Bakoitzaren aukera.

Elur pixkat jarleku batetik hartu eta, borobil hotz eta zuria egin, eta... plaf!!!, aldemenekoaren etxeko kristala, apurtuta, hori da komeria! Edo bestela, makina

bat lagun elkartu eta elurrezko panpin bat egin. Gero norbaiten bufanda lapurtu, norbaiten etxetik lapikoa hartu, azenarioa dendako arduradunak oparitu, pipa aitona batengandik eskuratu, botoiak amari lapurtu, eta erratza garbitzaileari kendu. Prest edukiko genuke gure panpina.

Elurrarekin bat datorren aroa da jende askorentzat onena, baina txarrena dela ere esaten dutenak badira, izango dute beraien arrazoa, eguna moztu egiten delako, hotza datorrelako eta lagunekin jolasteko denbora gutxiago. Baina aspertuta zaudenean... elurra da jolasteko jostailurik onena.

ELURRA, ELURRA, ELURRAAA!
Iritsi azkar gure mendietara.

Legedia

Orwellen begia

- Azkenaldian entzuten dihardugu poliziak erabiltzen dituen bideo-kamarek buruzko eztabaidak. Zer dio legeak?

- Egia da gero eta kamara gehiago dagoela kaleetan zehar, bai trafikoa zaintzeko edo besterik gabe kalean gertatzen dena grabatzeko han hemenka kokatuta daudenak, bai segurtasun indarrek manifestazioak nahiz jende-konzentrazioak grabatzeko zuzenean erabiltzen dituztenak. Esan dezakegu hemen zenbait eskubide eta betebeharrak daudela auzian.

- Zeintzuk lirateke eskubide eta betebeharrak horiek?

- Ba Espainiako Konstituzioan eta Giza Eskubideen Europako Hitzarmenean jasotako ohore-eskubideak, intimitate-eskubideak eta norbere irudiaren gaineko eskubideak aurrez aurre egiten dute aginte publikoak eskubide hauen garapenean ez esku hartzeko duen betebeharrekin.

- Grabazio hauek, beraz, oinarrizko giza-eskubideak urratzen al

dituzte?

- Bi esparru bereizi behar dira hemen: pertsona baten etxea edota egoitza batetik, eta gune publikoa edo kalea batetik. Lehenengo kasuan beti ere aginte publikoak epailearen baimena behar du gune pribatu bate-



ELENA LAKA
(Abokatua)

an grabazioak egiteko. Herritarrek kalean askatasunez egindakoak grabatzea berriz, gehiegizko

"Herritarrok ez dugu informaziorik egunero harrapatzen dizkiguten irudiei buruz. Araudi zehatza falta da"



Artxiboko irudian, Ertzaintzaren alkoholemia kontrol bat.

esku hartzetzat jotzen dute epaileek baldin eta kasu bakoitzean zenbait baldintza ematen ez bada.

- Eta zeintzuk dira gune publikoetan bideo-grabazioak egitea zilegi egiten duten baldintzak?

- Lehenik eta behin, aginte publikoaren esku hartze hori legean jasota egon behar da. Honen arabera, poliziak ordena zaintzeko duen betebeharraren barruan, badu teknikak eskaintzen dizkion aurrerakuntza guztiez baliatzerik. Bigarrenekin, grabazio hori nazio-segurtasuna, segurtasun publikoa, herriaren ekonomia ongizatea edo herritarren osasuna, moralata edo eskubideak babestera zuzendu behar da. Azkenik, aginte publikoaren esku hartze horren, grabazio horren premia eta proportzionaltasuna neurtu behar dira gizarte demokratiko batean.

- Kasu bakoitza aztertu behar da beraz...

- Bai, aginte publikoaren interbentzio hauek kasu bakoitzean aztertu eta erabaki beharko dira. Hala ere komeniko litzateke araudi zehatzagoren bat arazo honi buruz, izan ere herritarrok gaur egun ez baitugu inolako informaziorik egunero harrapatzen dizkiguten irudiei buruz.

ZABALETA ERROTULOAK

Mota guztietako errotuloak
Fatxadak, eskaparateak...

Amillaga (Gasolindegia ondoan). Tfnoa: 76 57 34

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

Atzeritarrek nola ikusten gaituzte?

Euskaldunok beti izan dugu kanpora joateko grina, baina gure artean bizitzera ere etorri dira kanpotarrak. Bergaran bizi diren argentinarrak, thailandiar, arabiar, alemaniar eta eskoziar batekin hitz egin dugu, nola ikusten gaituzten jakiteko.

AURIOL MURPHY
Eskotziarra



Auriol Murphy eskotziarrak urteak dramataza Bergaran ingeles klaseak ematen. Bere ustez, euskaldunak itxi samarrak gara, baina jan inon baino hobe jaten omen da hemen.

"Batzuetan uste duzue onenak zaretela eta bestetan, berriz, txarra"

Auriol Murphy Edinbur-agon, Eskozian, jaioa da, baina duela 14 urtetik Bergaran bizi da. Gure herrira etorri zenean gehien kostatu zitzaiona herri batera moldatzea izan zen.

"Ni Eskoziako hiriburuan bizi nintzen eta oso zaila izan zen herri txiki bateko bizitzara moldatzea. Jendeari dagokionez,

uste dut mundu guztian berdintsua dela, baina biriburutik herrira badaude ezberdintasunak. Herri batean mundu guztiak daki ondokoak zer egiten duen, baina bere gauza onak ere baditu, laguntza eskatzeko orduan beti daukazu norbait ondoan" diosku Murphyk.

Hasiera batean herriko bizimodura moldatzea kostatu bazitzaion ere, gaur egun gustora bizi dela aitortu digu. Bergarak es-

kaintzen duen bizi kalitatea oso ona dela esan digu. Gure izaerari buruz galdetu diogunean, galdera zaila dela esan digu, baina erantzun hau jaso dugu: *"Orokorrean jentea ona da, baina nabiko itxia da. Jatekoak eta horrelakoak dira hemengo gauzarik onenak. Beste gauza batzutan, berriz, bezkuntzan esate baterako, kanpoko askoz hobea da. Hori azpimarratu nabiko nuke, gauza batzutan uste du-*

zue onenak zaretela eta beste batzuetan, aldiz, txarrenak. Bestela jentea ona da, baina nabiko itxia".

ELBACHIR SAIDI
Arabiarra

"Hemen askatasun baundiagoa dago"

Elbachir Saidi "Mitxel", 1976tik Antzuolan bizi den arabiarra da. Antzuolar batekin dago ezkondua. Orokorrean guri buruzko

Kizkur

**ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA**

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

Janden

AZKEN EGUNAK, PREZIO BEREZIAK
1.800tik 12.000 Pzta.ra arte

Irizar, 1 ☎ 76 20 03

REMENTERIA
Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan

Artekale, 6 Tfnoa: 76 13 29

iritzi nahiko ezkorra du. "Jendea nabiko itxia eta enbidioso da. Atzerritarra bazara atzerritarra izan behar duzu. Edozein gauzatan egin behar duzu lan, gaizki jantzi behar duzu... Lanean, esate baterako Gorlako baserri baten baten erantzuten baduzu, jendeak arraro begiratzen zaitu. Asteburuan kaletik bera baino hobeto bazoaz jantzita letxe txarrez begiratzen zaituzte. Agurtuko zaitu, baina gero atzetik begiratzen zaituzte. Nik guzti horretaz paso egiten dut, denak ez baitira berdinak. Pertsona nolakoa den jakiteko eurekin harremanak izan behar dira".

Mitxel lehen txikiteora eta gauzez ere irtetzen zen, baina azkenaldian, bere ardurak direla eta, ez da

asko irtetzen. "Hemen jendearekin harremanak izateko tabernara joan behar zara eta horrek ez nau betetzen. Zerk harritu nauen gebien? Hona etorri baino lehen Parisen eta Belgikan bizi izan nintzen eta han poliziak ez zigun ezer egiten uzten. Hemen, alde horretatik guretzat askatasun handiagoa dago, nahiz eta arazoak izan ditudan Guardia Zibilarekin".

NORA PALMITANO
Argentinarra

"Gebien harritu ninduen gauza bemengo janzkera izan zen"

Nora Palmitano, Argentinan, La Platan jaioa da. Bergarara duela bi urte t'erdi etorri zen, baina




Nora Palmitano argentinarrak urte pare bat edo daramatza Bergaran baina euskaraz oso ondo egiten du.

aurretik zortzi urtez Madrilen bizi izan da. Palmitanori nola ikusten gaituen galdetu diogu lehendabizi. "Hona etorri nintzenean gebien harritu ninduen gauza izan zen bemengo janzkera, ondo orraztuta eta ondo jantzita eta ikusi nuen itxurak garrantzia handia duela. Izaera aldetik Argentinarekin konparatuz, zerbait adieraztekotan, kontrolatuagoak zarete. Argentinan eza-gun bat kalean aurkitzen duzunean, besarkatu eta musu bat ematen diozu eta hori hemen ez da gertatzen. Hori gogorra egiten zait".

Gure ohiturei berba egiterakoan kuadrilak aipatu dizkigu Palmitanok. "Hona etorri arte ez nituen kuadrilak ezagutzen.

Oso harrigarria da txikitant hasi eta pertsona desberdin batzuk bizi osoan zehar kuadrilan ibiltzea".

Argentinan honek Bergaran bizi den denboran euskara ikasi du eta horri esker integratzeko erraztasunak izan dituen galdetu diogu. "Agian, hemen euskara baino inportanteagoa tabernetara joatea izango da. Ni ez naiz tabernetara joaten eta ez dut ulertzen alkobolaren behar hori. Hemen alkobola tartean ez badago harremanak izateko arazoak daude. Bestalde, herri lasaia da eta oraindik badago gauzak egiteko ilusioa. Gainera, herri alai da, San Martzialeko jaia, esate baterako, uste dut harrigarria dela, oso jai berezia da".



Elbachir Shaidi 1976a ezkerostik Antzuolan bizi da bertako batekin.



KORTA-ZAR

Txokolategia

Pintxo eta ogibitartekoen espezialitatea

OSTIRALETAN GOIZEKO

Barrenkale, 16 ☎ 76 20 62

SURPE

Taberna

Erdiko Plaza. Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA

UDO FROSCH
Alemaniarra

"Paisaia eta hemen dagoen martxa gustatzen zait"

Udo Frosch alemaniarra Duisburg hirian jaioa da eta 7 urte daramatza gure artean. "Hona etorri nintzenezan gebien barritu ninduen gauza paisaia izan zen. Mendiak, zubaitzak, oso paisaia politak. Era berean, hemen dagoen martxa. Alemanian jendeak ordu asko pasatzen ditu taberna batean, baina hemen tabernaz taberna ibiltzeak barritu nau gebienbat".

Jendearen izaerari dagokionez, Alemanian bezala danetik dagoela adierazi digu. "Hemengoan eta Alemaniaren karakterra antzerakoa da. Hona egokitzeko ez dut arazo askorik izan, andrearen koadrilarekin ibiltzen bainaiz. Bestalde, ni jaiotako biria nabiko handia da Bergararekin alderatuz eta orduan faltan botatzen ditut zineak eta horrelako gauzak, baina kotxea hartu eta ondoko berrietara joaten gara. Bergarari gauetan martxa pixkat falta zaio, azkarregi ixten baitituzte tabernak eta orduan kanpora joan behar dugu".

Adaptatzerakoan izan duen arazorik zailena hizkuntzarena izan da, baina hori denborarekin konpondu duenean guztiz in-

tegratua ikusten du bere burua Bergaran. Halere, honek ere gure janzkera eta alemaniarrena desberdina dela aipatu digu. "Hona etorri nintzenezan belarritakoarekin etorri nintzen eta jendeak arraro ikusten ninduen. Hemen asko zaintzen dira formak, janzkera aldetik".

SIRIWAN SI-ENG
Thailandarra

"Hemen altu egiten duzue berba"

Siriwan Si-Eng, Thailandiako hiriburuan, Bangkokon jaioa da eta duela 10 urte etorri zen Bergarara. "Ni bizitza osoan hiriburu batean bizi izan naiz eta hona etorri nintzenezan hemengo trankilitateak, mendiak eta jende-




Siriwan Si-Eng, Suitzan bizi izan zen Bergarara etorri aurretik.

gutxi ikusteak barritu ninduen. Baita jendeak altu berba egiteko daukan obiturak ere, horrek asko barritu nau".

Si-Engek beste aspektu interesgarri bat azpimarratu digu: "Thailandian zabartzarora beltzen garenan ez dugu gure itxura zaintzen; hemen, aldiz, guztiak oso dotore joaten dira eta hori asko gustatzen zait". Baina thailandiarrek ikusi du gustatzen ez zaion gauza bat: "Jendeak zigarroak eta paperak lurrera botatzen ditu eta hori ban ez da horrela izaten, zaborra kalera bota beharrean paperontzira botatzen dugu".

Si-Eng hona etorri baino lehen Suitzan bizi izan da eta gure artean gustora dagoela aitortu digu. "Hemen oso ondo bizi naiz, baina Suitzarekin alderatuz, emakumeak atzeratutakoak gaude. Han emakumezkoek eta gizonezkoek kanpoan egiten dute lan".



Udo Frosch alemaniarra oso gustora bizi da Euskal Herrian.

LARREA

TABERNA

Kale Barren, 17
ANTZUOLA

AZPEITXI

Aranerreka, 13 behea ☎ 76 55 00

Jatetxea

Osasun zerbitzu publikoari buruz zein iritzi daukazu?



Alberto Galarraga
25 urte, langilea

Segun zein mediku daukazu tratua ona izaten da baina suertea behar duzu. Ospitalean ez naiz egon baina Arrasatekoak behintzat fama txarra dauka. Baina ez dakit.



Carmen Lazkano
69 urte, jubilatua

Neri denean ondo tokatu zait. Oso tratu ona jaso dut eta inpresio ona daukat. Nere alaba Arrasaten egon da eta eskerrak hari bizi da. Baina denetik egongo da.



Antonio Mulas
58 urte, langilea

Orainarte ez dut inolako arazorik izan, ondo tratatu naute. Dena ondo, ez daukat inolako kezarik.



Sonia Gainza
21 urte, langilea

Ez dago zerbitzu onik. Denbora asko itxaron behar duzu eta medikuak eta tratua zertxobait hobetu daitezkeela uste dut.



Jose Mari Zabaleta
42 urte, langilea

Ni ez naiz joan oraindik. Joan bai baina iritzi bat izateko... Familiakoei tratu ona eskeini diete eta ondo. Egon naizenetan, pare bat aldiz, ez dut kejarik izan.



Filomena Rivera
40 urte, etxekoandrea

Ezin dizut esan anbulatorioari buruz ezer. Alaba aurreko urtean Arrasaten izan zen eta oso ondo joan zen egin zioten ebakuntza.

**TABERNA
ZAHARRA**

Jatetxea

bazkari eta
afariak

Tfnoa: 76 21 21
ANGIOZAR

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

**LARRAÑAGA
eta ZUBIA
Banatzaileak**

Errioxako ardoa, olioak,
esnea, lejiak...

Martokua, 32 ☎ 76 45 94

Taberna Kafetegia
**EHIZTARIAK
LOS CAZADORES**

Kafea da gure berezitasuna
Zubieta, 26 BERGARA



Elkarlana bultzatuz

Aspaldiko ideia batekin natorkizue oraingo honetan.

Betidanik pentsatu dut euskara guztiok behar gaituela eta gure hizkuntza zabaldu eta bizirik mantendu nahi badugu beharrezkoa dela talde nahiz jende ezberdinaren lana.

Dena den, eta bizitzako beste hainbat gauzatan gertatzen den bezala, euskararen kasuan ere, badirudi beronen alde jartzen ditugun indarrak eta egiten ditugun ahaleginek ez dutela beti guk espero dugun fruitua ematen.

Asko izaten dira sentimendu hau sortarazten duten arrazoiak; baina hauetako bat bakarrik aztertu nahi nuke oraingo honetan: Elkarlanean ez jardutea. Izan ere, eta lehen esan dudan bezala, beharrezkoak ditugu modu ezberdinez euskararen alde lan egiten duten talde eta pertsona ezberdinak baina, zenbait kasutan, elkarlanean bada askoz hobe.

Geure herrian bertan ere, baditugu eremu ezberdinetan diharduten hainbat talde eta pertsona; hor ditugu Jardun, Helduen Euskalduntze/Alfabetatzerako euskaltegiak, oinarritzko hezkuntza nahiz ertainetako euskal adarrak, UNEDeko EKD etab...

Gaur egun bakoitza bere kontura eta inolako koordinaziorik gabe ari gara lanean, eta zenbait gauzatan hala izan beharko bakoitzak bere eremu berezia dugulako, baina badaude elkarlanerako beste aukera batzuk ere, eta adibide bezala hor daukagu BOLO-BOLO. Zergatik ez egin horrelako gauzak sarriago?

Ez dakit oso ondo nori dagokion elkarlan hau bultzatu eta sustatzea, baina beharrezkoa dugula garbi dago. Hala ba, dagokionak edo besterik gabe gogoia daukanak egin dezala, gu guztion eta bereziki euskararen onerako izango baita.

Agurne BARRUSO



Merengea denentzat

Denon gustukoak dira merenge gozoak eta ritmo tropikalak, baina hori ez dago hain garbi merenge horiek Real Madridedeko jokalariek, zaletuak eta zuzendaritzakoak direnean, eta are gehiago datorren igandeko lehendakariaren hauteskundeetarako kanpainaren ondoren; urteko eztabaidarik interesgarriena edo Entzutegi Nazionaletik Amedo eta Garzon protagonista direla zuzeneko eztabaida bailitzan eskaintzen baitigute.

Valdanoren taldea azken denboraldietan baino hobeto jokatzen ari da; badirudi errekerperatzen ari dela garai batean futbol zelai guztietan izan zuen gaindiezin ospea. Baina Real Madrid taldearen arazoa ez da futbolerako duen gaitasuna, paradójikoa bada ere, lehendakari posturako hautagaiak eta kontu horrekin komunikabideen bitartez Estatu osoari ematen dioten paliza baizik. Mendozak, Florentino Pérezek eta Gómez Pintadok telebistako ordurik onenak betetzen dituzte eta askok eta askok madrildarren zale izan gabe eta igandeko hauteskundeak axolarik ez badie ere, hiru pertsonaien arteko irain, eraso eta bestelakoak jasan behar dituzte.

Real Madridedeko lehendakari posturako hiru hautagaiak ematen duten itxura penagarriak, argi eta garbi lagatzen du lehen mailako talde asko erakargarritasun gutxiko pertsonaien kapritxoaren esku dagoela. Futbolak ez ditu lehendakari batzuk merezi.

Juan Antonio MIGURA

BERGARA

Karrozeriak

Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA

☎ 76 12 31

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA



POL-POL

TABERNA

☎ 76 07 78

DEPORTIVO

TABERNA

☎ 76 01 51

Ipuin ilustratzaileak

Aste honetan zehar OHoko 3., 4. eta 5. mailako ikasleek **Euskal Herriko 18 ilustratzaileen lanak** ezagutzeko aukera izan dute **Udal Liburutegiak** Kultur Etxean antolatutako bisita gidatuei esker. **Nerea Lekerika** monitorearen eskutik, gaztetxoek haur literaturako ilustrazioei buruzko azalpenak jaso dituzte eta, era berean, ipuin bat ilustratu ahal izan dute. Beren lanak erakusketan bertan ikusgai izan dira eta Nerea Lekerikak azaldu digunez, gaztetxoek artean badira bai zenbait artista. Gaurko ilustratzaileen ondorengoak izango ote?



OHoko 3., 4. eta 5. mailako haurrak Kultur Etxeko erakustokian izan dira Euskal Herriko 18 ilustratzaileen lanak ikusten.



Il honen bukaeran DEBASA erakunde publikoaren Maltzaga-Urbina aurreproiektua ikusi ahal izango da.

Karpa ibiltaria Bergaran

Debasaren **Maltzaga-Urbina** aurreproiektua herriz herri erakusteko martxan jarri zen karpa ibiltaria Bergaran izango da **otsailaren 24tik martxoaren 5era** bitartean. Printzipioz karpa hori Gasteizen jartzekotan ziren Bergarara ekarri aurretik, baina Diputazioak lehendabizi Bergarara ekartzeko eskakizuna egin zuen eta azkenik **Behelako Estazioan** jarriko da aurretik. Interesatuak aurreproiektua ezagutzeko aukera izango dute, goizetan 11etatik ordu batera eta arratsaldetan 5etatik 9etara. Bestalde, Herri Batasunak **Gatzagako biztanleek** egindako aurreproiektuaren informazioa kaleratzea eskatu zuen eta Udala aztertzen ari da informazio hori herritarrei nola plazaratu.

Irizar, 2
☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK

• **Fotokopiak koloretan**
• **Publizitadedun kamisetak**
• **Oihal inprimaketak**

San Lorenzo, 7 behea.
☎ 76 50 39

AKORT

ARREGI

Eraikuntza materialeak

Biltegia Tellerian, Labegaraletan.
Tfnoa: 76 27 93


Udal Artxibategia eta ez komunak

Komentario ugari sortu ditu jendearen artean **Udaletxe ondoko Udal Artxibategi** berriak.

Herritarrak galdezka ari dira egunotan zer joango den Goiko Plazarako eskilaren bi aldeetan dauden ateetan (bata sarrera eta bestea leiho bat dira). Bertan, esan bezala, Udal Artxibategia jarriko da. Atetik sartu eta ikerlariendako gela bat, bulegoa eta sailkapenerako beste gela txiki bat izango dira. Beheko solairuan, berriz, depositoa egongo da, hezetan eta tenperatura egokiak mantentzeko kontrolarekin. Depositoan 1268 (Bergara sortu zeneko urtea) eta 1993 bitarteko udal agiritegi osoa gordeko da.



Zertan dihardute ba?




Andoni Urisabel

Arte Ederretako ikasle bergararraren lan bat erosi du Euskal Herriko Unibertsitateak bere Ondare Artistikoa osatzeko. Unibertsitateak 15 ikasleren lanak erosi ditu milioi 1'erdi pezetaren truke eta Urisabelen "Madonna" izeneko lanagatik 90.000 pezeta ordaindu ditu. Bere hitzetan, "titulua pinturako modelo emakumeei erreferentzia bat da eta figurazio hori musikaren mundura hurbildu dut, popari hain zuzen ere". Andoni Urisabel Arte Ederretako 5. mailan ari da Leioako Fakultatean.

Istripua

Aurreko ostiral goizean kotxe baten eta **Campsako kamioi zisterna** baten arteko istripua izan zen Zubiberrin. Ondorioz, kotxeak su hartu zuen eta kamioiko gidariak eta gerturatu zen beste hainbat jendeke amatatu zuten sua. I.M.D. kotxeke gidari gasteiztarra Arrasateko ospitalera eraman zuten buruan kolpe bat zuela baina berehala eman zioten alta. Lau tanke gasolina eta gasoileko beste bat zeramatzan kamioiak **Deba ibaira gasolina** dexente **isuri** zen. Zubillagako suhiltzaileak isurketa moztu eta gasolinarekin gerta zitezkeen arriskuak ebitatu zituzten. Ertzaintzak adierazi zuenez gasolina isurketa garrantzirik gabekoa izan zen.



Istripua izan zuten giariak hasieran susto ederra hartu bazuten ere, ez zen gauza larririk gertatu.

iRUDI
Erlojudenda
Bitxitegia
Ibargarai, 2
☎ 76 51 65

IZADI PILI GISASOLA
Zurradero, 2
behea.
☎ 76 58 83
Santiveri
Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua

ITXASMENDI
ERREKADISTA
Barrenkale, 36
BERGARA
☎ 76 50 64 / 76 13 61
EGUNERO DONOSTIA, BERGARA, ARRASATE,
ARETXABALETA, ESKORATZA eta OÑATIRA.

Izaskun Arziniega

17 urterekin Izaskun Arziniegak Amodiozko Gutunen Lehiaketako 2. saria eta herriko onenarena irabazi ditu "Maitasunak ez du mugarik" lanari esker. Izaskun UBI ikasten ari da Ipintza Institutuan.



"Ez naiz sekula maiteminduta egon. Sentimenduak azaltzeko onena aurrez aurre esatea da. Amodio platonikorik? Behin izan nuen bat. Lehenbizi begien espresioan fijatzen naiz. Lagunak sorpresak ematen badaki hobe"

- Maitasunak ez du mugarik?
- Ez.
- Zergatik bi mutilen arteko harremana?
- Lagun baten esperientzian oinarritu naizelako.
- Zenbat aldiz maitemindu zara?
- Inoiz ez.
- Zer uste duzu nabaritzen dela maitemintzean?
- Ez dakit, poza izango da.
- Korrespondentziaz maiteminduko zinateke?
- Ez.
- Sentimenduak azaltzeko aurrez aurre ala kartaz?
- Aurrez aurre.
- Amodio platonikorik izan duzu?
- Bai, behin.
- Hutsik egiten ez duen esaldi bat?
- "Oso interesantea zara".
- Eta kalabazak jasotzekotan, zer?

- Mendira joan eta oihuka hasi.
- **Lehen musua gogoratzen?**
- Bai, oso nerbiosa nengoen.
- **San Balentin ospatzen duzu?**
- Ez, "El Corte Inglés"en asmakizuna da.
- **Maitemintzeko sasoirik onena?**
- Beti.
- **Odol beroa ala odol hotzekoa?**
- Odol beroa.
- **Zelakoa da zure amodio ideala?**
- Deportista, majua eta intelijentea.
- **Holako asko daude?**
- Bai, nahiz eta batzuk ez konturatu.
- **Zenbateko garrantzia du sexoak amodioan?**
- 1etik 10era 5.
- **Zer da lagunarengan gehien apreziatzen duzuna?**
- Sorpresak ematen jakitea.
- **Zertan fijatzen zara lehenengo?**
- Begien espresioan.
- **Laguna konkistatzeko plan bat?**
- Elkarrekin mendira joatea.
- **Poesia ala nobelak?**
- Nobelak.
- **Idazle bat?**
- Isabel Allende.
- **Filme erromantiko bat?**
- La Bella y la bestia.
- **Esna amets egiten duzu?**
- Ez. Lotan ere ez...
- **Zer egingo duzu sariaren diruarekin?**
- Gurasoek lagatzen badidate Aste Santuan ahiztiarekin Palmara joan.

Biltoki



SUKALDE ETA BAINURAKO ALTZARIAK.
DISEINU ETA KALITATE HAUNDIKOAK.
5 URTEKO GARANTIA.

SAN PEDRO PLAZA Z/G ☎ 76 34 00

PHILIPS



TEKNOLOGIA ETA DISEINUA.
TB, TURBO DRIVE-DUN BIDEOAK.
HI-FI MATCH-LINE EKIPOAK.
100 HERTZIOTAKO DIGITAL SCAM TB-K
BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96

dekorazioa

GAZTE ESTILOKO ALTZARIAK.
ALFONBRAK, LARRUZKO SOFAK.
DEKORAZIORAKO OSAGARRIAK.

SAN MARTIN PLAZA ☎ 76 43 51

SONY

TB, BIDEOAK, KAMARAK.
HI-FI EKIPOAK.
SUPER TRINITRON TB.

BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96

ETXEBIZITZA

Garajea alokatzen da Mas-terreka kalean. ☎ 76 45 10.

Pisua salgai Osintxun. 3 milioi. ☎ 76 49 12.

Pisua salgai San Migel ka-lean. ☎ 76 02 13.

Garajea salgai Torrekuan. ☎ 76 16 68.

Pisu bat alokatzen da Ma-xiategin. ☎ 76 46 15.

Pisua salgai Koldo Elei-zalden. ☎ 76 56 90.

Pisua eta lonja salgai Osin-txun. ☎ (945) 25 19 64.

Garajea salgai Zurradero 8an. ☎ 76 13 93.

Bi pisu alokatzen dira San Pedro kalean. ☎ 76 13 23.

Pisu amueblatua salgai O-sintxun. 75 m2. ☎ 76 08 51.

Pisua salgai Osintxun. ☎ 76 55 98/17 27 (gauz).

Garajea salgai Osintxun. ☎ 76 55 98/17 27.

Pisua salgai Artzamendi 17an. ☎ 76 10 55.

Garajea salgai prezio onean. ☎ 76 48 08.

Garajea saltzen da Zurra-dero 2an. ☎ 76 12 42.

DENETARIK

Pekines txakurkumak salgai. ☎ 76 26 92.

Soinu beltza salgai. ☎ 76 59 95.

Braco aleman txakurrak salgai. ☎ 76 10 79.

Strong bateria salgai. 20.000 pta. ☎ 76 32 39.

Trialeko Cota 349 mota-rra salgai. ☎ 76 18 96.

Musika bateria salgai. Ia berria ☎ 76 08 58.

Lada Niva (SS-AN) eta Ford Scort (SS-AD) ko-txeak salgai. ☎ 76 00 51.

Volkswagen Corrado kotxea salgai (SS-AG). ☎ 76 38 16 (gauz).

Renault 19 16v. kotxea salgai (SS-AJ). 53.000 Km. ☎ 76 24 02.

Ford Fiesta SS-AD kotxea salgai. ☎ 76 46 80 (gauz).

Reflex Minolta argazki ka-mara (7000 AS) salgai. 35-70 eta 70-120 objetiboak eta flasharekin. ☎ 76 04 15.

Sega Megadriveko jokoak salgai. 2.000 pezeta. ☎ 76 25 12.

Paseorako bizikleta ego-era onean salgai. 9.000 pezeta. ☎ 76 16 51.

Belarritako bat galdu dut San Lorentzotik Matxiate-gira bitartean. Familiako oroigarria. ☎ 76 47 85.

LANA

Ingeles klaseak. ☎ 76 22 90 (Ainhoa).

OHO eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Etxebizitzak garbitzen di-tut. ☎ 76 59 47 (Loli).

Ingeles Filologian lizen-tziatuak ingeles klaseak ematen ditu. ☎ 76 26 63.

BBB eta LH klaseak. ☎ 76 24 31 (Eneko).

Etzeko lanak egin edota haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 57 53 (Sonia).

Matematika eta Zientzie-tako klaseak. ☎ 76 06 50.

BBB, UBI eta Lanbide Heziketako klaseak. Baita etxez etxe. ☎ 76 18 00.

Etzeko lanak egingo ni-tuzke. ☎ 76 53 21.

Etzeko lanak egin edota haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 08 55 (Miren, gauz).

Etzeko lanak egin edota zaharrak zainduko nituzke. ☎ 76 46 14.

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

Matematika finantziero klaseak. ☎ 76 05 43.

Ingeles Filologian lizen-tziatuak ingeles klaseak ematen ditu. ☎ 76 17 36.

Euskarazko klaseak har-tuko nituzke. ☎ 76 05 97.

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 45 93.

Ordenadorez lanak pasa-tzen ditut. ☎ 76 27 59.

EDEL TAPIZDENDA

Etzerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta, 14 BERGARA

IGARZA MERZERIA LENZERIA

Irala, 5 ☎ 76 24 88 BERGARA

SUBIJAI

Gazteentzako moda

Irizar, 1 ☎ 76 42 41

Aranzabal

OIHALAK

Zubieta ☎ 76 11 50



"Taldearen 10. urteurrena ospatzeko, apiriletik ekainera bitartean hainbat ekitaldi antolatuko ditugu"

"Urtean zehar 18 bat emanaldi egiten ditugu herriko eta auzoko jaietan batipat"

IBON UNAMUNO, XAMATZ DANTZA TALDEKOA

"Hutsune bat bete eta euskal kulturaren alde lan egiteko sortu zen Xamatz"

10 urte bete dira dagoneko herriko neska gazte talde batek bultzatuta, Xamatz dantza taldea sortu zuenetik. X. Urtemuga dela eta, Ibon Unamuno, Xamatzeko presidentearekin hitz egin dugu.

- Zer dela eta sortu zen Xamatz?

- Hutsune bat bete eta euskal kulturaren alde lan egiteko. Aranzadi Ikastolako dantza taldeak haurrekin egiten du lan, baina Ramon eta Joakin Etxaniz anaien Gazte-Alai taldea desagertu zenean gazteenzako dantza talderik ez zegoen.

- Ze adineko jendea dabil Xamatz?

- 18 urtetik hogeitapikura artekoak. Gure arazoa dantzari asko kanpoan ikasten ari direla da.

- Emaizkiguzu antolatuko dituzuen ekitaldiei buruzko xehetasunak.

- Apirilaren 29an Larrindantza ikastaroa hasiko dugu. Nafarroako dantza bat da, dultzainarekin jotzen dena eta jendeari asko gustatzen zaiona. Maiatzaren 14ean, berriz, Deba Garaiako Dantzari Eguna Bergaran ospatuko da. Bestalde, maiatzean zehar, fetxa ze-



Gaur egun 36 bat gaztek osatzen dute Xamatz dantza taldea.

hazteke daukagu, jantzien erakusketa bat egingo dugu Kultur Etxean. Amaiera ekitaldi modura, Pazkuetan jaialdi bat egingo dugu, Xamatzeko partaide izan diren guztiek parte hartuko dutelarik. 70 bat lagun izango dira guztira: dantzari, dultzainero, txalapartari, bertsolari, soinu-jole eta abarrak. Oraindik ez dakigu non egingo den.

- Gaur egun zenbat zarete?

- 36 bat gara: 18 neska, 12 mutil eta 16 musikari.

- Dantza zaharrak berreskuratzeko ahaleginak ere egiten dituzue ez?

- Bai, Ramon Etxanizen

"Xamatzeko partaide izan diren dantzari, dultzainero, txalapartari, bertsolari edota soinu-joleek, 70 bat lagun guztira, hartuko dute parte Pazkuetan egingo den jaialdian"

Berriotxoa dantza berreskuratu genuen iaz eta baitara mailan batzar bat osatu dugu Gipuzkoako Dantzen Federazioari laguntza eskatzeko dantza berriak ikasteko.

- Urtean zehar zenbat ekitalditan hartzen duzue parte?

- Karnabaletan, Pazkuetan eta San Martzialetan dantza egiteko konprometua daukagu Udalarekin. Gero, Mizpirualde egoitzan, auzoko hainbat jaietan..., urtean 18 bat ekitaldi dira, ia gehienak Bergaran.

- Eta kanpora irtetzeko asmorik?

- Herri batzuekin hartu-emanak bultzatzeko asmatan gabilta.

- Zein da Xamatzek une honetan duen arazorik haundiena?

- Egonkortasun falta batez ere..., eta mutil gutxi gabiltzala.

- Dantza egiteko modua hobetzeko irakasle-rik edo baduzue?

- Orain dela gutxi Oñatin izan gara Federazioak antolatutako ikastarobatean. Irakasle napar batetik eman digu eta Nafarroako dantzak hobetzen ibili gara, egiten ditugun hutsak konpontzen, berotzeko arketak ikasten...



TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	A m u l t z o a
1. Errotagain	9	5	5	0	0	30	6	
2. Madura	8	6	3	2	1	19	12	
3. Kabia	7	6	3	1	2	25	13	
4. Bildurbarek	6	7	3	0	4	27	30	
5. Bar Canalejas	5	6	2	1	3	18	18	
6. Arloteak	5	6	1	3	2	19	23	
7. Angiozar	5	7	3	1	3	29	36	
8. Ozaeta	5	7	2	1	4	16	24	
9. Ufala	5	6	2	1	3	16	27	
10. Mongatxurra	4	6	2	0	4	15	28	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	B m u l t z o a
1. Usoa	11	8	5	1	2	38	28	
2. Etxagi	10	8	4	3	1	24	15	
3. Arkupe	10	6	5	0	1	43	18	
4. Pagomendi	9	8	4	1	3	25	28	
5. Ogizun	8	6	3	2	1	20	11	
6. OH Zerezos	8	5	4	0	1	16	11	
7. Revienta	6	7	2	2	3	18	33	
8. Os Jardineiros	3	7	1	1	5	11	31	
9. Guadalest	2	9	1	0	8	1	8	
10. Uve Bikoitza	2	6	1	0	5	14	27	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	C m u l t z o a
1. Hartu Zamak	10	6	5	0	1	41	11	
2. A Ze Flaxa	10	5	5	0	0	21	10	
3. Etxenagusia	8	5	4	0	1	22	16	
4. Eri	5	6	2	1	3	16	22	
5. Nahik. Hool.	5	6	2	1	3	14	20	
6. Kriterium	4	5	2	0	3	17	14	
7. EH Biterrak	3	5	1	1	3	10	25	
8. Amozkibar	2	5	1	0	4	10	20	
9. Soropotroak	1	5	0	1	4	12	25	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	D m u l t z o a
1. Ezinleike	9	6	4	1	1	18	14	
2. Kirolzaleak	8	4	4	0	0	27	4	
3. La Juve	7	5	3	1	1	24	31	
4. Iganekoak	6	5	3	0	2	37	20	
5. Shaktale	5	4	2	1	1	7	12	
6. Ari Ari	5	6	2	1	3	14	28	
7. Nekrofilikos	2	5	1	0	4	22	22	
8. Krai	0	6	1	0	5	12	22	
9. Const. Bergara	-2	5	1	0	4	4	12	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	E m u l t z o a
1. Txipiron	9	5	4	1	0	24	6	
2. Pikapiedras	7	5	3	1	1	20	20	
3. Pata Negra	6	5	3	0	2	23	13	
4. Los Txupeta	5	4	2	1	1	11	8	
5. Aldoka Maldoka	5	5	1	3	1	21	20	
6. Patxaran Team	3	5	1	1	3	15	18	
7. Labegaraieta	3	6	1	1	4	23	28	
8. Paok San Juan	2	5	0	2	3	10	34	

emaitzak

Angiozar-Madura **3-4**
 Arloteak-Ozaeta **5-5**
 Canalejas-Mongatx. **7-2**
 Ufala-Bildurbarek **5-4**

OH Zerezos-Usoa **3-0**
 Revienta-Kayak OJ **3-2**
 Pagomendi-Arkupe **2-9**
 Uve Bikoitza-Etxagi **4-6**

EZ DITUZTE
 PARTIDURIK
 JOKATU

EZ DITUZTE
 PARTIDURIK
 JOKATU

EZ DITUZTE
 PARTIDURIK
 JOKATU

partiduak

LARUNBATA

Barruan

9:00: Labegaraieta-Patxaran Team

OH Zerezos

10:00: OH Zerezos-Arkupe

A Ze Flaxa

11:00: Amozkibar-A Ze Flaxa

Arkupe

16:00: EH Biterrak-Nahikari Hool.

Uve Bikoitza

17:00: Ogizun-Uve Bikoitza

Paok de San Juan

18:00: Los Txupeta-Paok

Kriterium

19:00: Kriterium-Etxenagusia

Los Txupeta

LARUNBATA

Barruan

9:00: Txipiron-Pikapiedras

Kirolzaleak

10:00: Kirolzaleak-Ezinleike

Iganekoak

11:00: Krai-Iganekoak

Ezinleike

16:00: Soropotroak-Hartu Zamak

Shaktale

17:00: Shaktale-Nekrofilikos

Construcciones Bergara

18:00: C. Bergara-La Juve

Mongatxurra

19:00: Mongatxurra-Errotagain

La Juve

OHARRA:

Beltzez agertzen diren taldeek arbitratuko dituzte partiduak

Axen Garitanok txakur lerekin zeharkatu berri du Pirinioa

"Pirena proba sekulako esperientzia izan da"

Axen Garitano 16. postuan sailkatu da larunbatean amaitu zen Txakur Leren "Pirena" izeneko proban.

14 egunez, bertan partent hartu duten 33 partaideek 450 kilometro bete behar izan dituzte eta Axenen hitzetan, *"esperientzia sekulakoa izan da, errepikaezina. Ez daukat berbarik bura deskribatzeko, aluzinantea izan da... Ni basieran amaitzearekin konformatzen nintzen eta ez nuen pentsatzen lortu dudana bori lortzea"*.

Axenek 17 ordu eta 50 minutu egin zituen, Pichler irabazle austriarrak ia 6 orduko aldea atera ziolarik.

Formigaletik, La Molinara

Esan bezala, 14 etapa izan dira: Formigalen hasi eta Cerler, Benasque, Baqueira, Ainé, Aransa, Plateau de Beille edota Pas de la Casa-tik (Andorra) pasa ondoren, La Molinara amaitu ziren proba. bertan izan ziren lau euskaldunetatik Axen izan zen lehena eta bere hitzetan suete txarra izan zuen; *"leben etapan txakurrek hanka egin zidaten eta denbora dexente galdu nuen. Baina 3. etapen asko errekuperatu nuen: erlojuz kontrako probetan egiten den moduan 7 atera ziren nere aurretik eta 7ak aurreratu nituen eta lehena izan nintzen"*



Piriniotako mendi eta zelai elurtuetan zehar 450 kilometro egin ditu Axenek 14 egunetan.

helmugan, nabiz eta denborarik onena ez egin. Edur asko? Ez pentsa, nabiko eskas ibili gara. Tramo asko lur gainekoak izan dira. Dena den, politena gaueko etapak izan dira, aluzinantea benetan".

Pirena gorragea

Proba amaitzeko bi etapa falta zirela 16. postuan zegoen eta postu horri eustea lortu zuen Axenek. Ruandaren alde egin zuten Euskadiko Itzulia ala Pirenaren artean gogorrera zein den galdetu diogu Axeni: *"Pirena da gogorragea. Ruandarena egiteko inork ez gaitu behartzen. Han ostera proba erlojuz kontra egin behar duzu. Baina bi gauzak diferenteak dira"*.

Pirenan, berarekin batera Ruandaren aldeko Itzulian parte hartu zuen Eneko Eizagirre izan da laguntzaile lanetan: *"bai oso lan ona egin du eta eraman nituen 10 txakurrak ere oso ondo portatu dira. Datorren urtean joango naizen? Ez dakit ekonomia aldetik ondo bagabiltza beharbada bai. Aurten behintzat sponsorrak fenomeno portatu dira nirekin. Eskerrak eman nahi dizkiet"*.

Eibarko Txakurtegia

Bestalde, datorren martxoaren 1etik Deba Beheko Mankomunitateak Eibarren (Elgetako bidean) zabalduko duen Txakurtegiako arduraduna izango da Axen Garitano.

Guztira 12 proiektu aurkeztu ziren lehiaketara eta Axenena aukeratu zuten epaimahaiak. Seguruenik Axen eta Eneko Eizagirreren artean eramango dute txakurtegia.

"Pirena Ruandaren aldeko Euskadiko itzulia baino gogorragea izan da, biak ezberdinak diren arren"

Herriko ikastetxeetako 548 gazte Eskola kirolean astero

Eskola Kiroleko programan aurten 548 gazte txo parte hartzen ari dira. Eskola Kirol Kontseiluak antolatu ditu 6 urtetik 14ra bitarteko neska-mutikoei zuzendutako kirol txapelketak eta Eskola Kiroleko koordinatzailea den Begoña Payásen hitzetan, "aurten iaz baino partaide gehiago lortu ditugu. Ikastetxe danetan gebitu egin da partebartzaileen kopurua: Aranzadi Ikastolatik 317 gaztetxo daude, Mariaren Lagunditik 182 eta San Martinetik 59".

14ra bitartekoeak, berriz, nahi duten taldeko zein banakako kirola aukeratu dezakete. Taldekakoen artean futbola izan da arrakastatsuen eta banakoeitan jende gutxi dabil baina igeriketan ari dira gehienak".

txapelketa ezberdinetako partiduak jokatzen Aranzadi Ikastola, Mariaren Lagundia eta San Martin Agirre ikastetxearen kantxetan.

Ipintzan eta Labegarieta kiroldegian ere partiduak izaten dira. Astebukaera honetarako, esate baterako, 18 partidu daude iragarrita. Etorkizuneko kirolariak ikusteko aukera paregabea.

Larunbatero

Benjaminak eta alebinak larunbatero ari dira

Futbola, eskubaloia eta saskibaloia

Larunbatero kirol ezberdinak egiteko aukera dute gaztetxoek. 7. mailara bitartekoeak futbola, saskibaloia eta eskubaloiko partiduak izaten dituzte eta, horrez gain, hamabostean behin, igeriketa, atletismoa, badmintona, herri-kirolak eta beisboleko probak izaten dira. Era berean, Pol-Polarekin batera mendi irteerak ere antolatzen dira bi astean behin. Irteera hauek egiteko asmoz 442 gaztetxok eman zuten izena.

Begoña Payasek azaltzen digun moduan, "6 eta 7 urtekoek ez dute partidurik izaten eta 12 urtetik



Gazteek kirola egin dezatela da kontua.

KARTELDEGIA

Futbola

Bergara-Zestoa
Preferentea.

Igandea, 16.15. Agorrosin.

Bergara-Lizardi Institutua
Emakumezkoak.

Larunbata, 16.00. Ipintza.

Eskubaloia

Bergara-Tolosa

Jubenil mutilak.

Igandea, 12.15.

Labegarieta kiroldegian.

EMAITZAK

Futbola

Hondarribia 2-Bergara 2

Preferente maila.

Bergara 0-Tolosa 2

Lehen errejionala.

Bergara 3-Illintxa 0

Lehen mailako jubenila.

Idiazabal 1-Bergara 1

Lehen mailako kadetea.

Bergara 1-Almen 1

2. mailako kadetea.

Bergara 4-R. Sociedad 1

Infantil maila.

Urretxu 4-Bergara 0

Emakumezkoak.

Eskubaloia

Bergara 34-Bizkor 17

Kadete mutilak.

Aloña M. 14-Bergara 9

Kadete neskek.

Hernani 13-Bergara 12

Jubenil neskek.

ileapaindegia

eder gela

disdira

Masterreka, 7 • Tfnoa: 76 00 55

GURIDI altzariak

Era guztietako
altzariak

Artekale, 8 Tfnoa: 76 31 0 2

EGUREN

GESTORIA

Maria Pilar Eguren Díez

Kolegiatutako administrazio gestorea

Simon Arrieta Plaza, 3 behea

☎ 76 21 65 / 76 24 45



Baietz zeu be eon

Mendira jutia modan daola diñue, baiña erretratuak argi erakusten dau, Bergaran beti eon dala mendirako afiziñua. Erretratu, Pol-Poleko erakusketa aretuan etarata dao, oiñ dala 17 bat urte. Bertan, lehen eoten zien zine emanaldi bat ikusi geinke, zihero arrakastatsua hau.

Mendiko pelikulak, gaztetxuek einddako akanpadan ataratako diapositibak, sokorrismo ikastaruak eta holakuak sarri antolatzen zien Pol-Poleko areto horretan eta 60ko hamarkadan erdialdian jaixotakuek parte hartzen zebeñ gehixenbat. Oin be izaten die holakuak, baina seguru ez dala hainbeste jende juntatzen.

Izen guztiak jartzia ezinezkoa jaku, hortarako ez daukagulako lekuik, baiña 26 eta 30 urte artian baldin baukazu, baietz erretratuan eon.

*Argazkia: Pol-Pol Mendizale Taldea
Testua: Felipe Iñarra*

Atsedeen zentrua
LOKARTU
Koltxoi-denda
Orain SORALUZEN

ORTZI
erretegia

Ezkontzak, jaunartzeak, despedidak...
130 lagunentzako jantokia
☎ 76 22 68 ANGIOZAR

ZUBIETA
elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTITAKO INSTALAKUNTZAK
Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48



ederfu

BARRENKALE, 23

☎ 76 29 65

BERGARA



ARGAZKI

PROMOZIO BEREZIA!!

Errebelatu itzatzu zure
argazkiak 10x15 edota
13x18 neurritara
(biak prezio berdinean).
Karrete bat eta anpliazio
bat oparituko dizugu!!



HALZZARI

Bolu, 24 behea

BERGARA (Gipuzkoa)

Tfnoa eta Faxa: (943) 76 30 57



Aprobetxa ezazu

FAGOR  en

SUKALDE ALTZARIAK

eskaintza
paregabea

Jantzi ezazu

kolore berriekin

zure

*kalitate*dun

sukaldea




%ko **30** ko
deskontuak

• ACQUA • FILA • CELICA •
• KRISTAL • AGATA •

modeloetan